## 2389

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 1ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, 2007-2008 ikasturteko master ofizialak egiteko beketarako deialdirako guztizko zenbatekoa igotzeko baimena ematen duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2007ko azaroaren 21eko Aginduak, 2007-2008 ikasturtean master ofizialak egiteko beketarako dei egiten duenak (EHAA, 2007ko abenduaren 12koa), bere xedapen gehigarrian xedatu duena oinarritzat hartuta, eta agortu gabeko aurrekontu baliabiderik badagoenez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko beste laguntza-programa batzuk gauzatzearen ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

2007-2008 ikasturteko master ofizialak egiteko beketarako guztizko zenbatekoa igotzeko baimena ematea, noraino eta 272.010 euroraino.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 1a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
PABLO JESÚS LARRAURI ALTONAGA.

## 2389

RESOLUCIÓN de 1 de abril de 2008, del Viceconsejero de Administración y Servicios del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por la que se resuelve autorizar el incremento del importe total de la convocatoria de becas para la realización de masteres oficiales en el curso 2007-2008.

En base a lo dispuesto en la Disposición Adicional de la Orden de 21 de noviembre de 2007, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan becas para la realización de masteres oficiales en el curso 2007-2008 (BOPV de 12 de diciembre de 2007), y dado que existe disponibilidad presupuestaria no agotada, resultante de la ejecución de otros programas del Departamento de Educación, Universidades e Investigación,

RESUELVO:

Autorizar el incremento del importe total de la convocatoria de becas para la realización de masteres oficiales en el curso 2007-2008, hasta la cantidad de 272.010 euros.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de abril de 2008.

El Viceconsejero de Administración y Servicios,
PABLO JESÚS LARRAURI ALTONAGA.

# OSASUN SAILA

## 2390

176/2008 EBAZPENA, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, lanpostuan jarduteko gaitasuna baloratzeko batzordea sortzen duena.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 4ko 1082/2006 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze-probak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartu ziren. Ebazpen horren 6. oinarriaren d) idatz-zatiaren arabera, deitutako destinoez lehiaketa-oposizio sistemaren bidez jabetzeko betekizunetako bat da destinoan normaltasunez jarduteko gaitasun psikofisikoa izatea; gaitasun hori behin hautatzeprozesua gainditu denean egiaztatu beharko da, horretarako izendatzen den zentroan egingo den mediku-azterketaren bitartez. Destinoaz jabetu ahal izateko, ezinbestekoa izango da betekizun hori betetzea.

# DEPARTAMENTO DE SANIDAD

## 2390

RESOLUCIÓN 176/2008, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se crea la comisión de valoración de aptitud para el desempeño del puesto de trabajo.

La Resolución 1082/2006, de 4 de octubre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se aprueban las bases generales que han de regir los procesos selectivos para la adquisición del vínculo estatutario fijo en Osakidetza-Servicio vasco de salud, prevé en su base 6, apartado d) que entre las condiciones para optar a los destinos convocados por el procedimiento de concurso-oposición se debe poseer la aptitud psicofísica precisa para el normal desempeño del destino, la cual se acreditará, una vez superado el proceso selectivo, mediante reconocimiento médico en el centro que al efecto se determine, quedando supeditada la toma de posesión al cumplimiento de este requisito.

Halaber, ebazpen horren 10.10 oinarrian ezartzen denaren arabera, hautagaiak, lanpostuaz jabetzerakoan, lanpostuan normaltasunez jarduteko gaitasun psikofisikoa duela egiaztatzen duen mediku-agiria aurkeztu behar du, hain zuzen ere, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbituzko Prebentzio Zerbitzuak emandako agiria. Eta minusbaliatu-egoera aitortuta duten esleipendunek, berriz, mediku-azterketa horretan egiaztatu behar dute esleitu zaien destinoko lanpostua betetzeko behar besteko gaitasuna badutela; horrez gain, hala dagokionean, txosten berean adierazi beharko da lanpostuan zein moldaketa egin behar den minusbaliatuaren lanari egokitzeko.

Zuzendari nagusiaren 5/2007 Jarraibideak 2006ko Lan Eskaintza Publikoan hautatutako langileei eta behin-behineko langileei osasun-azterketak egiteko prozedura ezarri zuen. Jarraibide horretan zehazten da Batzordeak zein egoera aztertuko dituen:

– Gutxienez % 33ko minusbaliotasuna duten pertsonentzat diren lanpostuetara txanda irekian aurkezten den langilea.

– POUaren iritziz, eskainitako lanpostuetakoren baterako murrizketa partziala, behin-behinekoa edo behin betikoa, aurkezten duen langilea.

– Lanak egiteko egokitzapenen baten beharra daukan langilea.

Jarraibide horretan ezarritakoaren arabera, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak kasu horiek aztertuko dituen batzorde bat sortu beharra dauka.

Horregatik guztiagatik, eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 11. eta 12. artikuluek emandako eskumenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.***– Destinoan jarduteko gaitasuna baloratzeko Batzordea sortzea, lotura estatutario finkoa lortzeko edo finkoa ez den langilegoa kontratatzeko egiten diren azterketa-medikoetarako. Batzorde hori ondoko kideek osatuko dute:

a) Ana Collazos Dorronsoro. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Prebentzio Zerbitzuko koordinatzaile nagusia.

b) Rocio Barreira Méndez. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Prebentzio Zerbitzuko psikologoa.

c) Inmaculada Muro Ruiz de Arcaute. Txagorritxu Ospitaleko OPUko medikua.

d) Borja González Robredo jauna. Gurutzeta Ospitaleko OPUko medikua.

e) Miren Sarasola Salaverria andrea. Donostia Ospitaleko OPUko medikua.

Así mismo, en la base 10.10 de la mencionada Resolución, se establece que en la toma de posesión el aspirante deberá aportar el reconocimiento médico que acredite la aptitud psicofísica precisa para el normal desempeño del destino, emitido por el Servicio de Prevención de Osakidetza-Servicio vasco de salud. Añadiendo que el reconocimiento médico de los aspirantes que tengan la condición de discapacitados, deberá acreditar que el aspirante reúne la aptitud necesaria para el desempeño de las funciones del destino objeto de adjudicación, haciendo constar, en su caso, las adaptaciones del puesto de trabajo que sean necesarias.

La Instrucción 5/2007, de la Dirección General, establece el procedimiento para la realización de los exámenes de salud del personal seleccionado en la Oferta Pública de Empleo 2006 y del personal eventual. En la misma se determina que serán analizadas en Comisión las siguientes situaciones:

– Trabajador que se presenta en el turno libre dentro de los puestos reservados para personas con discapacidad de al menos el 33 por ciento.

– Trabajador que a juicio de la UBP presenta alguna restricción parcial, temporal o definitiva para algún puesto de trabajo dentro de los ofertados.

– Trabajador que precisa algún tipo de adaptación para la realización de las tareas.

De conformidad con lo previsto en la mencionada Instrucción, Osakidetza-Servicio vasco de salud debe crear una comisión al objeto de analizar estos casos.

Por todo lo expuesto, y de acuerdo con las competencias atribuidas en los artículos 11 y 12 del Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud,

RESUELVO:

***Primero.***– Crear la Comisión de valoración de aptitud para el desempeño del destino en relación con los reconocimientos médicos necesarios para la adquisición del vínculo estatutario fijo, así como para la contratación de personal no fijo, estando integrada dicha comisión por los siguientes miembros:

a) D.ª Ana Collazos Dorronsoro. Coordinadora General del Servicio de Prevención de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

b) D.ª Rocio Barreira Méndez. Psicóloga del Servicio de Prevención de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

c) D.ª Inmaculada Muro Ruiz de Arcaute. Médico de la UBP del Hospital Txagorritxu.

d) D. Borja González Robredo. Médico de la UBP del Hospital Cruces.

e) D.ª Miren Sarasola Salaverria. Médico de la UBP del Hospital Donostia.

f) Ana Gutiérrez Sojo andrea. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendariordetzako teknikaria; idazkari-lanetan jardungo du.

*Bigarrena.–* Ebazpen honek EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

*Hirugarrena.–* Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; hala ezartzen da azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko otsailaren 26a.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko
zuzendari nagusia,
GLORIA QUESADA MENÉNDEZ.

f) D.ª Ana Gutiérrez Sojo. Técnico de la Subdirección de RRHH de Osakidetza-Servicio vasco de salud en calidad de Secretaria.

*Segundo.–* Dotar de efectos a la presente Resolución a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV.

*Tercero.–* Ordenar la publicación de la presente Resolución en el BOPV.

Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de la publicación de esta Resolución, de conformidad con la Ley 4/1999, de modificación de la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de febrero de 2008.

La Directora General
de Osakidetza-Servicio vasco de salud,
GLORIA QUESADA MENÉNDEZ.

## INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

### 2391

AGINDUA, 2008ko martxoaren 7koa, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuarena, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politikarako Aholku Batzordeko kideak kargutik kendu eta, ondorioz beste batzuk izendatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 30. artikuluan eta hori garatu zuen urriaren 2ko 262/1990 Dekretuan ezarritakoaren arabera eratu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Politikarako Aholku Batzordea, administrazio-organo aholku-emaile gisa, hain zuzen ere. Batzordea honako hauek osatuko dute: Eusko Jaurlaritzako Sail bakoitzeko ordezkari batek eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan usadioak eta jardunak antolatzeko eta ezartzeko esperientzia izateagatik, lagundu eta arrazoizko proposamenak egin ditzaketen gizarte, ekonomia eta lanbide arloko sektoreen ordezkariek edo ingurumenaren arloan eragina duten sektoreen ordezkariek.

1996ko uztailaren 12ko Aginduaren bidez, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politikarako Aholku Batzordeko kideak izendatu zituen.

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

### 2391

ORDEN de 7 de marzo de 2008, de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, por la que se dispone el cese y nombramiento de los miembros del Consejo Asesor de Política Territorial del Gobierno Vasco.

En virtud del artículo 30 de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco, y su desarrollo mediante la aprobación del Decreto 262/1990, de 2 de octubre, se creó el Consejo Asesor de Política Territorial del País Vasco, como órgano administrativo consultivo, conformado por una persona representante de cada uno de los departamentos del Gobierno Vasco, y por miembros que, representan, a su vez, intereses de aquellos sectores sociales, económicos, profesionales o con incidencia medioambiental que pueden aportar propuestas fundadas y contribuir con su experiencia a la ordenación e implantación de usos y actividades en el territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Por Orden de 12 de julio de 1996, del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, fueron nombrados los miembros del Consejo Asesor de Política Territorial del País Vasco.